Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

# ZERBITZU-GUTUNA

## Foru langileen hautaketa



# Helburua

Langileak hautatzeko prozesuaren helburua da herritarrei zerbitzua emateko profesionalik egokienak jartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskura, ahalik eta epe laburrenean:

- Berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak beteko dira.
- Indarrean dauden legeak errespetatuko dira.
- Prozesua gardentasunez eta bizkor egingo da.
- Erabilitako bitartekoak optimizatuko dira.
- Hautagaiei hauek emango zaizkie:
  - Une bakoitzean behar duten informazioa.
  - Prozesuan parte hartzeko erosotasun-baldintzak.
  - Tratu bikaina.
  - Arreta pertsonalizatua eta dituzten beharretarako erantzun egokia; beharrak askotarikoak direla kontuan hartuta, irtenbide eraginkorrak eskainiko dira.



# Eskainitako zerbitzuak

## Hautagaiei

Prozesu osoan zehar **informatuta** egotea, modu argian eta pertsonalizatuan, weba, telefonoa eta posta elektronikoa erabiliz.

Gai-zerrendak egokiak eta **lortzeko modukoak** izatea.

Hautaketa-prozesuaren **objektibotasuna eta gardentasuna** bermatuta egotea.

Hautaketa-prozesuan izena emateko izapideak **bide telematikoa** erabiliz egin ahal izatea.

Talde bat ere ez diskriminatzea, **ezgaitasuna, hizkuntza, generoa** edo beste edozein arrazoi dela eta.

## Bizkaiko gizarteari

**Gaitasun egokia eta nahikoa duten** pertsonak hautatzea, **ahalik eta epe laburrenean eta segurtasun juridiko handienarekin.**

# ESKAINI ETA EMATEN DUGUNA

## HAUTAGAIEI

### INFORMAZIOA ETA ORIENTABIDEA

- Hautaketa-prozesuari buruzkoa; **Hurbileko Tratua** emango zaie, **Atsegina, Adeitsua eta Hizkuntza Bitan**.
- **Informazio** eta **Komunikazio** bideak dituzte eskura hautaketa-prozesu osoan zehar.

### BALDINTZAK BERMATZEN ZAIZKIE

- Prozesu guztietan **Parte Hartzeko Aukera Berdinak** izan ditzaten.
- Hautaproba guztiak **Objektiboak** eta **Gardenak** izan daitezen.

### HAUTAPROBAK

- **Konfidentzialtasuna** eta **Trazabilitatea** bermatzen dira hautaprobak prestatu, biltegiratu, zaindu eta garraiatzeko prozesuetan.
- Hautaprobak hautagaiak aukeratutako hizkuntzan egin daitezke: **Euskaraz** edo **Gaztelaniaz**.
- Hautaprobak **Zuzentzeko Irizpideak** haiek egin aurretik zehazten dira eta edonork ezagut ditzake.
- Hautaprobak **Berrikustea** eska daiteke, epaimahai kalifikatzaileak haiek **Ebaluatu eta gero**.
- Proben puntuazioa dela eta, **Erreklamazioak** egin eta administrazio-prozedurako araudian ezarritako **Errekurtsoak** jar daitezke, eta horiek guztiak behar bezala bideratu eta erantzungo dira.

## EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEARI

### AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA

- **Logistikoa**, eskura izan dezaten haien eginkizunak betetzeko behar duten azpiegitura.
- **Teknikoa**, haien eginkizunak betetzeko.
- **Juridikoa**, erabakiak hartzerakoan.



# LORTU NAHI DUGUNA

## HAUTAGAIEN ALDETIK

### PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENEAN

- Haien eskabideak lortu nahi ditugu, deialdian eskatzen diren **Baldintza** guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.
- Haien agiriak lortu nahi ditugu, deialdian ezartzen diren **Epeetan** eta, ahal bada, eta hautagaien segurtasunerako betiere, epeok agortu gabe.

### HAUTAKETA-PROZESUARI BURUZKO IRITZIA LORTU NAHI DUGU, HAUEK ERABILIZ...

- Hautagaiek bidalitako **Komunikazioak**; hautemandako akatsen berri emateko, haiek zuzendu ditzagun edo organo eskudunari helarazteko.
- Betetzeko ematen zaizkien **Gogobetetze-Inkestak**; haien bidez, ematen dugun zerbitzuak eragindako gogobetetzea neurtu eta zein arlotan hobetu behar dugun jakin ahalko dugu.
- Hautagaiek bidalitako **Kexak** edo **Iradokizunak**; aztertu egingo dira, hobetzeko neurriak ezartzearren, neurriok beharrezkotat jotzen badira.

# LANKIDETZARAKO BIDEAK

## PROZESUAREN GARAPENARI LOTUTAKO KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

### HONAKO HAUEK EGINDAKOAK...

- Hautagaiek.
- Prozesuko laguntzaileek.
- Epaimahaiek.
- Hornitzaileek.
- Erakundeek.
- Herritarrek.

### HAUEK ERABILIZ EGINDAKOAK...

- Idazkiak.
- Posta elektronikoa.
- Ahozko komunikazioak.

## INKESTAK ETA BALORAZIOAK

### HAUEK BETETAKOAK...

- Prozesuan parte hartzen duten taldeek.

# Konpromisoak

## Informazioa

### Euskaraz eta gaztelaniaz erantzutea

Aurkeztutako kexa kopurua.

### Berehalako arreta, telefonoz eta zuzenean

Berehalako arreta ez jasotzeagatik aurkeztutako kexa kopurua.

### Prozesuari buruzko informazio osoa eta argia: oinarriak, eskabideak, emaitzak, datak, erreklamazioak...

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

### Kontsulta idatziei 5 eguneko epean erantzutea

Aurkeztu eta erantzundako kontsultak aztertzea.

### Kexa eta iradokizunei 30 eguneko epean erantzutea

Aurkeztutakoak eta epe horren barruan erantzundakoak aztertzea.



## Gai-zerrendak argi definitzea eta zerrenda horiek lortzeko modua eskaintzea

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

## Probak egiteko denbora egokia eta argibide argiak ematea

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

## Tratu pertsonal egokia eta adeitsua ematea, hizkuntza bitan, eta sortzen diren beharrei erantzuteko gai dena

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

## Laguntza ematea nolabaiteko egokitzapenak behar dituzten pertsonei

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

## Azpiegitura egokia izatea (antolaketa, materialak, pertsonak,...) probak egiten diren bitartean

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

## Segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea azterketak prestatu, itzuli, kopiatu, zaindu eta garraiatzerakoan

Gogobetetze-inkesten emaitzak.



# MISOAK

## -PROZESUA

### Lehenengo azterketa, gutxienez, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda argitaratu eta hilabete bira egingo da

Epeak aztertzea.

### Probak puntualtasunez hastea

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

### Ariketa guztietan sistemak ezarriko dira, objektibotasuna eta gardentasuna bermatzeko

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

### Test motako ariketetan argitaratuko dira:

- galderen koadernotxoa
- erantzunen txantiloia

Weba egiaztatzea.

### Lan-poltsak prestatzea, hautatuen zerrenda argitaratzen den egunean; zerrenda hori webean argitaratu eta astero eguneratzea

Epeak aztertzea.



# Jendaurreko zerbitzua

## Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzua

**Bulegoa:** **Foru Jauregia** — Kale Nagusia, 25, Bilbo; PK 48009
Telefonoa: 94 406 80 00
Posta elektronikoa: www.bizkaia.net/laguntzaileOEP-EPE
Weba: www.bizkaia.net

**Ordutegia:** 08:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik

**Zerbitzuak:**
- **Arreta espezializatua eta pertsonalizatua, bai zuzenean, bai telefonoz eta modu telematikoan.**

**Iristeko bidea:** Metroaren Moyuako geltokia, Diputazio kaleko irteera.

## Laguntza, Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoa

**Bulegoa:** **Diputazio kalea, 7, beheko solairua, Bilbo; PK 48009**
(Foru Liburutegiaren kristalezko eraikina, Foru Jauregiaren atzealdekoa). Telefonoa: 94 406 80 00 - 94 406 77 77 Posta elektronikoa: www.bizkaia.net/laguntza
Weba: www.bizkaia.net

**Ordutegia:** Astelehenetik ostegunera: 08:30etik 13:30era eta 16:00etatik 17:30era
Ostiraletan: 08:30etik 13:30era
Ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean bulegoa goizez baino ez da irekiko.

**Zerbitzuak:**
- Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendutako idazkien eta eskaeren erregistroa.
- Jatorrizko agiriak egiaztatzea, kopia edo jatorrizko agiria administrazio publikoetan izapidetzen den espediente bati erantsi behar bazaizkio.
- Aldundiaren zerbitzuei buruzko erreklamazioak eta iradokizunak jasotzea.

**Iristeko bidea:** Metroaren Moyuako geltokia, Diputazio kaleko irteera.

